



50. URTEURRENEKO JAIA EKAINAREN 11N OSPATUKO DUGU

Oporren bueltan Laudio Ikastolaren 50. urteurreneko ospakizunen prestatutzaren azken txanpari ekingo diogu.

Ekitaldi ezberdinak antolatuko dira maiatzean zehar, orientazio proba 7an, eta Ikastolaren historiara bidaiara 21ean besteak beste.

Amaierako jaia berriz, ekainaren 11n, larunbata, burutuko dugu. 50. urte hauetako ibilbidean aritutako familia, langile eta ikasle ohiak elkartzeko ekitaldia burutuko dugu goiz partean. Eguerdian, ikasle eta langile ohiak bazkari batean elkartzeko ditugu eta egunari amaiera emateko erromeria ere izango dugu.



Bezperan, ekainaren 10ean, ostirala, ikasturte amaierako jaia burutuko dugu ikasle eta familiekin.